



FOSTERLANG

Europako komunitate gutxituen hizkuntza kapitala eta iraunkortasuna

Donostia - 2026ko maiatzak 27-28

Informatika Fakultatea (EHU)

📍 Manuel de Lardizabal Pasealekua, 1
20018 Donostia



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Munduko Hizkuntza
Ondarearen
UNESCO Katedra
Cátedra UNESCO
de Patrimonio Lingüístico
Mundial



Europar Batasunak
finantzatua



Asteazkena, maiatzak 27

9:00-9:30. Harrera eta ongi etorria.

9:30-9:45. Hasiera saioa.

Hizkuntza kapitala eta iraunkortasun sozioekonomikoa.

Goizeko lau saioetan egoera minorizatuan dauden hizkuntza komunitateen kapital linguistikoa, iraunkortasuna eta ongizatea izango dira hizpide. Hasteko, kontzeptuon inguruko kokapen teorikoa eskainiko da, horien artean dauden loturak aztertuz. Bigarrenik, Euskal Herrian garatutako egitasmo bat oinarri hartuta, hizkuntza kapitala komunitate kapitalen begirada zabalagotik aztertuko da. Azkenik, komunitatearen iraunkortasuna eta ongizatea helburu duten Europako eta mundu mailako hainbat hizkuntza komunitate minorizatuetaiko esperientziak aurkeztuko dira.

9:45-10:30. Justyna Olko & Ibon Manterola. *Hizkuntza kapitala, komunitatearen iraunkortasuna eta ongizatearen ikuspegi emikoak.*

10:30-11:00. Iñaki Marko & Jone Goirigolzarri-Garaizar. *Hizkuntza gutxituen biziberritzea eta komunitate-kapitalen markoa: Euskal E5 proiektuaren kasua (Euskal komunitaterako etorkizuneko eszenarioen ko-eraikuntza).*

11:00-11:30. Kafe-atsedena.

11:30-12:15. Elin Jones & Gòrdan Camshrom. *Hizkuntza-kapitala lanean: kontzeptuak, kritikak eta Gales eta Eskoziako kasu-azterketak.*

12:15-14:00. Kasia Wojtylak, Izar Mendiguren et al. *Ongizatea eta iraunkortasun sozioekonomikoa hizkuntza-komunitate minorizatuetaan: kashubiera, galesera, euskara, Kuku-Yalanji eta Eskoziako gaelikoaren kasuetako kontzeptualizazio emikoak eta esperientziak.*

14:00-15:30. Bazkaria.



Kapitalaren transmisioa tokian tokiko ekologietan – Hezkuntza, komunitate mailako sozializazioa eta belaunaldien arteko trukea.

Tailer honek hizkuntzak eskuratu, transmititu, erabili eta garatzen direneko dinamika sozial konplexuak islatuko ditu. Tailerrean, belaunaldien arteko hizkuntzen transmisioaren testuinguruak eta baldintzak aztertuko dira, bai eta Europan eta Latinoamerikan arriskuan dauden hizkuntza gutxituen sozializazio komunitarioa ere. Aurkezpen eta eztabaidek marko teorikoak, analisi konparatiboak eta hainbat kasu-azterketa jorratuko dituzte.

15:30-16:50. 1. zatia: Aurkezpena: *Linguapax Review 2025. "Ez dut nire hizkuntza hitz egiten": belaunaldien arteko transmisioa eta komunitate-sozializazioa minorizazio egoeran edo desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzetan.*

1. Justyna Olko. *Transmisioaren erronka: ikuspegi konparatua Europako hizkuntza-komunitate minorizatuen eta jatorri migrantekoen artean.*
2. Emili Boix-Fuster. *Belaunaldien arteko hizkuntza-transmisioa eta hizkuntza biziberritzea.*
3. Daniel Wutti. *Hizkuntza gutxituak eta identitatea: Karintiako eslovenieraren kasua.*
4. Artur Jablonskji & Anna Kościukiewicz-Jabłońska. *Hizkuntza minorizatuen transmisioa eta erabilera Polonian: belaunaldi-krisia.*
5. Farida Boudichat. *Amaziera Katalunian: belaunaldien arteko transmisio-eta biziberritze-ekimenak.*

16:50-17:10. Kafe-atsedena.

17:15-18:30. 2. zatia: Belaunaldien arteko hizkuntza-transmisioa sustatzea.

6. Elin Haf Gruffydd Jones, Catrin Llwyd & Richard Glyn Roberts. *TRIAUD eredua (hizkuntzaren transmisioa, eskurapena, erabilera eta garapena) galesaren testuinguru garaikidean.*
7. Agnieszka Otwinowska, Emilia Wąsikiewicz-Firlej & Anna Szczepaniak-Kozak. *Nortasuna eta hizkuntza: hezkuntzaren rola Kashubiar eta Lemko komunitateetan.*
8. Maite Garcia. *Euskararen transmisio hutsetik euskarazko sozializaziora eta familia-hizkuntza politikerara: paradigma-aldaketa euskararen belaunaldiz belaunaldiko etenaren eta jarraipenaren azterketan.*



Osteguna, maiatzak 28

Hizkuntza gutxituen eta haien hiztunen hizkuntza teknologiak eta baliabideak.

Parte-hartzaileek hizkuntza-teknologiaren hainbat aplikazioren gaineko lanketa praktikoa egingo dute: itzulpen automatikoa, hizketaren ezagutza automatikoa, hizkuntza-baliabideak hizkuntza-artxiboetan aurkitu eta gordetzea, eta idatzizko estandar bateraturik ez duten hizkuntzentzako hizkuntza-corpusak sortzea. Ez da beharrezkoa gai horietan alde aurretiko ezagutzarik izatea. Parte-hartzaileek ordenagailu eramangarri bat ekartzea komeni da, jarduera praktikoetan aretoan bertan parte hartzeko. Programaren bigarren zatian, bazkari-atsedenaren ondoren, online parte-hartzeko aukera egongo da.

9:00-11:00. Federico Gaspari. *Itzulpen automatikoaren kalitatea ebaluatzea eta post-edizioa hizkuntza gutxituentzat.*

Saio honek ikuspegi orokorra eskainiko du itzulpen automatikoa (IA) egoera egokietan erabiltzeak ekar ditzakeen onurak maximizatzeko praktika egokiei buruz, arrisku posibleak saihestuz. Adimen artifizialaren azken aurrerapenak kontuan hartuta, bereziki hizkuntza gutxituen kasuan, IAren kalitatea ebaluatzeko aukera automatikoen eta giza/eskuzko aukeren abantaila eta erronka nagusiak azalduko dira. Horrek post-edizio estrategia eraginkorrak azaltzeko oinarri bat emango du, non IAren emaitza giza esku-hartzearen bidez zuzentzen eta hobetzen den.

11:00-11:30. Kafe-atsedena.

11:30-13:30. Arvind Kumar. *Hizketaren ezagutza automatikoa hizkuntza gutxituentzat.*

Saioak Europako baliabide gutxiko hizkuntzentzako hizketaren ezagutza automatikoari (HEA) buruzko ikuspegi orokorra eskainiko du. Halaber, hizkuntza horietarako HEA ereduak sortzeko erronkak aztertuko dira, eta gaur egungo teknologia aurreratuenak azalduko dira. Gainera, Google Colab-en oinarritzko esperientzia bat eskainiko da, eredu bat doitzeko existitzen den datu multzo bat erabiliz.



13:30-15:00. Bazkaria.

15:00-15:45. Paul Trilsbeek. *Hizkuntza-artxiboen erabilera: hizkuntza gutxituen baliabideak aurkitzea eta gordailutzea.*

Saio honek hizkuntza-artxibo desberdinetan material digitalak aurkitu eta eskuratzeko moduak aztertuko ditu. Horrez gain, hizkuntza-materialak artxibo batean gordetzeko prestatzeko beharrezkoak diren urratsak landuko dira; besteak beste, fitxategi-formatu egokiak aukeratzea, metadatuak deskribapenak sortzea eta datuen antolaketarako oinarritzko printzipioak.

15:45-16:30. Joanna Dolinska. *Idatzizko estandar bateraturik ez duten hizkuntzentzako hizkuntza-corporak sortzea.*

Saio honetan ondare-datuen rola aztertzean arreta jarriko dugu, baliabide gutxiko hizkuntzen dokumentazioan hizkuntza-corporen bidez. Hainbat teknika aztertuko dira idazkera mota desberdinak eta ortografia anitzak dituzten hizkuntzekin lan egiteko. Halaber, metadatuak garrantzia azpimarratuko da, eta *Universal Dependencies* ezagutuko dugu hizkuntza-dokumentazio eta -deskribapenerako iturri garrantzitsu gisa.

16:30-17:00. Itxiera saioa kafearekin.

17:00-18:30. Fosterlang proiektu barneko lantalde bilerak.

Informazio praktikoa

- Aldibereko itzulpen-zerbitzua eskuragarri: ingelesa – euskara eta euskara – ingelesa.
- Interneterako sarbidea eskuragarri.
- Parte-hartzea: doakoa, izena eman [HEMEN](#).
- Lekua: EHUko Informatika Fakultateko Gradu Aretoa (Manuel de Lardizabal Pasealekua, 1. 20018 Donostia).



Europar Batasunak finantzatua. Adierazitako iritzi eta ikuspegiak egile(en)aren erantzukizuna dira soilik, eta ez dute zertan islatzen Europar Batasunaren edo Ikerketarako Europako Exekutiba Agentziaren (REA) iritzia. Ez Europar Batasuna ezta diru-laguntzaren erakunde emailea ere ezin dira izan horien erantzule.